



Koldobika Jauregi: Natura, Sorkuntza, Komunitatea



Ur Mara Museoko artea eta bizitza ospatzeko ikastaroa.

Eka. 16 - Eka. 17 2025

Kod. K02-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 16 - Eka. 17 2025

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Uda Ikastaro hau Koldobika Jauregi eskultore, sortzaile eta herri-gizonaren bizitza eta lanari eskainitako jardunaldi berezia da. Gipuzkoako Alkiza herrian jaiotako artistaren ibilbide artistikoa, soziala eta kulturala aztertzeko gonbita da, diziplina anitzeko ikuspegi batetik. Programa zabal honek hainbat gai jorratuko ditu: Jauregi artistaren sormen ibilbidea, bere artearen kokapena euskal testuinguruan, natura eta komunitatearekin dituen harremanak, eta bere proiektu garrantzitsuenak, batez ere Ur Mara museoarenak azken 10 urteotan.

Hitzaldi, mahai-inguru eta jardueretan zehar, arte garaikideko, zientziatako, literaturako eta herrigintzako adituek parte hartuko dute. Parte-hartzaileek aukera izango dute Koldobika Jauregiaren lanaren dimentsio ezberdinak ezagutzeko: bere eskulturatik hasi, bere gizarte konpromisora arte. Ikastaroak ez du soilik begirada historikoa eskainiko, etorkizunera begirako gogoeta ere proposatuko du, Jauregiaren lanaren eta bizitza ikuspegiaren garrantzia azpimarratuz. Basoko ibilaldi bat, memoria kolektiboa lantzeko dinamika bat, *Dantza* filmaren proiektzioa eta musika emanaldi bat ere ikastaro honen parte izango dira.

Ikastaroa, beraz, Koldobika Jauregiaren bizitza eta lanaren omenaldi bat da, baita inspirazio iturri bat ere arte, natura eta komunitatearen arteko elkarriketarako. Udako solstizioan egingo da, Alkizako paisaia ederrean eta Donostiako Miramar jauregi dotorean. Solstizioaren sinbolismoak bat egiten du Koldobika Jauregi artistaren lanarekin: naturarekin bat egitea, argiaren eta denboraren metamorfosiak ulertzea.

Garrantzitsua: Uda ikastaroa euskaraz eta gaztelaniaz egingo da. Bi hizkuntzak erabiliko dira, Ur Mara Museoan egiten den moduan: biak modu naturalean tartekatuz. Ez dugu, ordea, berehalako itzulpenik eskainiko, arrazoi tekniko eta aurrekontuengatik.

Hala ere, euskarazko edukiek izango dute gaztelaniazko material osagarria, edo azalpen laburrak ondoren,

parte-hartzaile guztiek ulertu eta parte hartu ahal izateko.

Helburuak

Koldobika Jauregi artistaren ibilbidea eta sorkuntza aztertzea.

Arte, natura eta komunitatearen arteko harremanak esploratzea.

Sorkuntza artistikoaren dimentsio ezberdinak identifikatzea.

Arte garaikidean eta naturan esperientzia berritzaileak bultzatzea.

Komunitate garapenerari eta herrigintzari buruzko gogoeta egitea Gipuzkoan.

Lankidetzak



Programa

2025-06-16

09:00 - 09:30	Erregistroa / Registro
09:30 - 10:00	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: Jon Umerez Urrezola UPV/EHU - Ikerketa Errektoreordea Iñaki Irazabalbeitia Fernandez Alkizako Udala - Alkatea
10:00 - 11:00	“Koldobika Jauregi: sarrera bat” Uxo Zumeta Zumeta Arte Estudioa - Artista Ainara Martin Blanco Universidad de Deusto - Investigadora
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:15	“Ur Mara desde lo rural y lo urbano” Maria Montesino de la Iglesia La Ortiga Colectiva - Coordinadora
12:15 - 13:00	“Grap-hik! 2017-2023” Carmiña Dovalle Carrión AHIKU (Arkitektura eta Hiri Kultura) elkarte - Docente
13:00 - 14:00	“Arte y naturaleza desde la perspectiva curatorial: Arteleku, Tabakalera y el Museo de Bellas Artes de Bilbao” Maidier Zilbeti Perez UPV/EHU - Irakaslea Mikel Zugaza Museo de Bellas Artes - Director Oier Etxeberria Bereziartua Tabakalera - Programa publikoko eta komisariotza arduraduna
16:00 - 16:30	“Natur ondarearen babesa herrigintzatik” Iñaki Aizpuru Oiarbide Naturtzaindia - Botanika arduraduna
16:30 - 17:00	“Proteger la naturaleza, reforzar la comunidad” Joaquin Araujo Ponciano Proyecto Gran Simio - Naturalista
17:00 - 18:00	“Dantza: solasaldia “ Telmo Esnal Filma zuzendaria Javier Agirre Erauso Argazki zuzendaria

2025-06-17

09:30 - 10:00	“Uda Ikastaroaren sukaldea (asmoak, making of, etorkizuna...)” Antonio Casado da Rocha UPV/EHU - Ikerketa Arduratsurako Zuzendaria Elena Cajaraville Ur Mara Museoa - Zuzendaria
10:00 - 10:30	“El lugar de Koldobika Jauregi en el arte vasco”

10:30 - 11:00	“La singularidad barroca de Koldobika Jauregi” Santiago Eraso Beloki Arteleku - Ex-Director
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 13:00	“Zientzia, artea eta poesia Ur Maran” Uxue Juárez Gaztelu Idazlea eta argazkilaria Ana Galarraga Aiestaran Elhuyar - Zientzia komunikatzailea
13:00 - 14:00	“Hitzaren babesa: euskal eta nazioarteko literatura Ur Marako Thoreauren etxolan” Juan Kruz Igerabide Sarasola Idazlea Juan Gartzia Idazlea, euskalaria eta itzultzailea
16:00 - 16:30	Fagus Alkiza Interpretazio Zentroari bisita
16:30 - 17:30	“Ur Marak zer eman didan” Nagore Legarreta Argazkilaria Eduarne Ayuso Apaolaza Alkizako Udala - Kultur teknikaria Susana Cencillo Musikaria Elena Cajaraville Ur Mara Museoa - Zuzendaria
17:30 - 18:30	Jarduera bereziak: Erakusketa + Ibilaldia basoan zehar + Memoria kolektiboa osatzeko dinamika bat
18:30 - 20:00	Musika emanaldia + Talde argazkia + Eko talo
20:00 - 20:10	Itxiera Antonio Casado da Rocha UPV/EHU - Ikerketa Arduratsurako Zuzendaria

Zuzendaritza



Antonio Casado da Rocha

UPV/EHU

Antonio Casado da Rocha ikerlaria eta filosofia irakaslea da UPV/EHUUn, eta gaur egun Ikerketa Arduratsuen arloa zuzentzen du. Donostiako Ospitaleko Etika Batzorde Klinikaren kide izan da, eta Fundació Víctor Grífols i Lucas-ek emandako Bioetikako Ikerketa Saria jaso du. Bere ibilbideak diziplinarteko ekoizpen akademiko zabala uztartzen du unibertsitate-kudeaketako esperientziarekin eta ezagutza gizarteratzeko ahaleginarekin.




Elena Cajaraville

Ur Mara Museoa

Elena Cajaraville (1965) diziplina anitzeko sortzailea da, zuzendaritza artistikoan, ekoizpen-diseinuan, bitxigintza garaikidean eta arte tekstilean esperientzia duena. 2011tik, Ur Mara museoko zuzendaritza-taldeko kidea da. 2022an, La terre est bleu comme une orange erakusketa aurkeztu zuen Koldobika Jauregiarekin Okendo Kulturetxean. 2017an, Dantza filmeko zuzendaritza artistikoa eta ekoizpen-diseinua egin zituen Telmo Esnalentzat. 1996-2000 artean, Alemanian bizi izan zen, Arte paralelo a la Naturaleza proiektuan parte hartuz Insel Hombroich museoan. 2003-2005 bitartean bitxigintza garaikidea ikasi zuen Donostiako Eskola Politeknikoan, eta 1987an arte tekstilaren espezializazioa Artelekun. 1991n, Fundación Santillanan erakutsi zuen, eta 1990-91 artean, Xenpelarren Goi Lizo tailerra zuzendu zuen. 1983-1985ean egur lantzeko prestakuntza jaso zuen. Bere lanak natura, artea eta esperimentazioa uztartzen ditu.

Irakasleak



Javier Agirre Erauso

Javier Agirre Erauso euskal zinema garaikideko argazki-zuzendari nabarmena da. Andoaingo Irudi eta Soinu Eskolan formatua, hainbat filmetan lan egin du, hala nola Loreak, Amama, La trinchera infinita, Maixabel eta Akelarre. 2018an, Goya Saria jaso zuen Handia filmagatik Argazki Zuzendaritza Onenaren kategorian, eta hainbat aldiz izan da Goya eta Platino sarietarako izendatua, bere estilo bisual poetiko eta naturalistagatik.



Iñaki Aizpuru Oiarbide

Naturtzaindia Elkarte

Iñaki Aizpuru Oiarbide botanikoa eta flora zein habitat naturalen kontserbazioan aditua da. Aranzadi Zientzia Elkarte, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Ihobe sozietate publikoan lan egin du, Flora Iberica eta Pirinioetako Landare Atlasaren gisako proiektuetan parte hartuz. Besteak beste, Euskal Herriko landareak eta Euskal Herriko zuhaitz eta zuhaixken gida lanen egilekide da. 2019az geroztik, Itsasondoko alkatea da.



Joaquin Araujo Ponciano

Naturalista. Idazlea, kazetaria eta zuzendari editoriala. Telebistako serieen eta zinemako dokumentalen zuzendari, errealizadore, gidoilari eta aurkezlea. Gai filosofiko, ekologiko, literario, biologiko eta agronomikoen dibulgatzailea hainbat hedabidetan. 27.500 zuhaitz landatu ditu pertsonalki, eta landaketa sustatu du hainbat erakundetan.



Edurne Ayuso Apaolaza

Alkizako Udala


Edurne Ayuso Apaolaza kultur dinamizatzailea da Alkizako Udalean, eta udal proiektuetan idazkari tekniko lanak ere betetzen ditu. Nazioarteko prestakuntza ekimenetan parte hartu du, besteak beste, Global Training programan, eta ondarearen interpretazioari lotutako sare europarretan dihardu lankidetzan.



Elena Cajaraville

Ur Mara Museoa

Elena Cajaraville (1965) diziplina anitzeko sortzailea da, zuzendaritza artistikoan, ekoizpen-diseinuan, bitxigintza garaikidean eta arte tekstilean esperientzia duena. 2011tik, Ur Mara museoko zuzendaritza-taldeko kidea da. 2022an, La terre est bleu comme une orange erakusketa aurkeztu zuen Koldobika Jauregiarekin Okendo Kulturetxean. 2017an, Dantza filmeko zuzendaritza artistikoa eta ekoizpen-diseinua egin zituen Telmo Esnalentzat. 1996-2000 artean, Alemanian bizi izan zen, Arte paralelo a la Naturaleza proiektuan parte hartuz Insel Hombroich museoan. 2003-2005 bitartean bitxigintza garaikidea ikasi zuen Donostiako Eskola Politeknikoan, eta 1987an arte tekstilaren espezializazioa Artelekun. 1991n, Fundación Santillanan erakutsi zuen, eta 1990-91 artean, Xenpelarren Goi Lizo tailerra zuzendu zuen. 1983-1985ean egur lantzeko prestakuntza jaso zuen. Bere lanak natura, artea eta esperimentazioa uztartzen ditu.



Antonio Casado da Rocha

UPV/EHU

Antonio Casado da Rocha ikerlaria eta filosofia irakaslea da UPV/EHU, eta gaur egun Ikerketa Arduratsuen arloa zuzentzen du. Donostiako Ospitaleko Etika Batzorde Klinikorearen kide izan da, eta Fundació Víctor Grífol i Lucas-ek emandako Bioetikako Ikerketa Saria jaso du. Bere ibilbideak

diziplinarteko ekoizpen akademiko zabala uztartzen du unibertsitate-kudeaketako esperientziarekin eta ezagutza gizarteratzeko ahaleginarekin.



Susana Cencillo

Akordeoilaria eta musika irakaslea da, Donostiako Kontserbatorioan goi-mailako titulua eskuratua. Gaur egun, akordeoia eta ganbera musika irakasten ditu Gasteizko Jesús Guridi Kontserbatorioan. Bohemien Trio, El síndrome de Stendhal eta SK Efimeroak bezalako proiektuetan parte hartzen du, eta Koldobika Jauregi eta Garazi Kamio artistekin lankidetzan aritu da.



Mikel Chillida Gutierrez

Mikel Chillida Gutiérrez Chillida Leku museoko Garapen Zuzendaria da, eta Eduardo Chillida eskultorearen biloba. Publizitate eta Harreman Publikoetan lizentziatua da Madrilgo Unibertsitate Europarrean, eta bere prestakuntza osatu zuen enpresa-kudeaketan IESE Business School-en. Publizitate-agentzietan zuzendari sortzaile gisa aritutakoan, 2014an Chillidaren ondarearen komunikazio-taldean sartu zen, eta 2018az geroztik museoko garapen-estrategia koordinatzen du.



Carmiña Dovale Carrión

Carmiña Dovale Carrión (Donostia, 1982) es arquitecta y doctora en arquitectura por la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de San Sebastián (UPV/EHU). En 2017 defiende su tesis doctoral titulada “Estrategias formales en el lenguaje compositivo de Eduardo Chillida” y en 2020 publica el libro “Geometría del orden” coeditado por Eunsa y el Museo Chillida Leku. En la actualidad es profesora en Aldapeta Maria Ikastetxea.



Santiago Eraso Beloki

Santiago Eraso Beloki kultur kudeatzailea eta komisarioa da, ibilbide luzea duena sektore publikoan. 1987tik 2006ra bitartean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Arteleku arte garaikideko zentroaren zuzendaria izan zen, eta funtsezko rola bete zuen Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua izateko hautagaitzan. Tratado de Paz bezalako proiektuak zuzendu ditu, eta Andaluzia Nazioarteko Unibertsitatearekin nahiz Madrid Destino erakundearekin lotura izan du, Matadero Madrid eta Conde Duque bezalako kultura-guneen koordinazioan arituz.



Telmo Esnal

Telmo Esnal Illarramendi zinema-zuzendaria eta gidoilaria da, euskal zinema garaikidearen sustapenean egindako lanagatik aitortua. Txotx (1997) film laburrarekin egin zuen debuta, Asier Altunarekin batera, eta bien lehen film luzea Aupa Etxebeste! izan zen (2005). Bere lanik esanguratsuena Dantza (2018) da, bizitzaren zikloa euskal dantza tradizionalaren bidez ospatzen duen musikal poetiko bisuala, elkarriketarik gabe eta karga sinboliko handiarekin, Ur Mara taldearekin elkarlanean egina.



Oier Etxeberria Bereziartua

Oier Etxeberria Bereziartua artista eta kultura-komisarioa da, sorkuntza bisuala eta teknologia, boterea eta irudikapenaren inguruko ikerketa kritikoa uztartzen dituen ibilbidearekin. 2023an, Evil Eye. Optikaren eta balistikaren historia paraleloa erakusketaren komisario-kidea izan zen Donostiako Tabakaleran; proiektu horrek optikaren aurrerapen teknologikoek espioitza eta militarismo testuinguruetan duten erabilera aztertu zuen. Besteak beste, La Bestia y el Soberano erakusketan parte hartu du, Bartzelonako MACBAn.



Ana Galarraga Aiestaran

Elhuyarreko zientzia Komunikatzailea

Ana Galarraga Aiestaranek albaitaritza eta elikagaien zientzia eta teknologia ikasi zituen, baina zientziaren dibulgazioan egin du bere ibilbide profesionala, Elhuyarren barruan. Elhuyar aldizkariko zuzendaria izateaz gain, komunikabide ugaritan kolaboratzen du. Zientzia gizarteratzeko beste ekimen batzuk ere antolatzen ditu, tartean, haur eta gazteei zuzendutakoak: parte-hartze saioak, sariketak, zuzeneko ekintzak, ipuinak, hitzaldiak, etab. Alderdi artistikoaren adibide gisa, Pettirekin batera Frankenstein agurgarria disko-liburua argitaratu du. Bere lan guztietan, garrantzia berezia ematen die berdintasunari, euskarari eta elkarlanari.



Juan Gartzia

Juan Garzia Garmendia idazlea, itzultzailea eta irakaslea da, literatura klasikoen euskararako itzulpenean egindako lanagatik aitortua. Bere lan nabarmenen artean daude Herman Melvilleren *Bartleby, the Scrivener* eta *Moby Dick* lanen itzulpenak, baita William Shakespeareren Sonetoak ere; azken horiengatik irabazi zuen Euskadi Itzulpen Saria 2015ean (Sonetoen edizioan Koldobika Jauregi aritu zen ilustratzaile gisa).




Juan Kruz Igerabide Sarasola

Juan Kruz IGERABIDE SARASOLA Adunan jaio zen (Gipuzkoa) 1956an. Zenbait urtean lehen eta bigarren hezkuntzako irakasle izan ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle jardun da Euskal Filologia sailean. Mikel Laboa Katedraren zuzendaria ere izan da aipaturiko unibertsitatean. Haur eta gazteentzat idatzi du gehienbat, eta baditu zenbait lan helduentzat ere, hala poesian nola prosan. Haur literatura ikertuz, besteak beste saiakera bat idatzia du (Bularretik mintzora, Erein, 1994).



Uxue Juárez Gaztelu

Uxue Juárez Gaztelu idazlea, zuzendaritza artistikoko arduraduna eta Hizkuntza eta Literatura irakaslea da Iruñeko institutu batean. Filologia Hispanikoan lizentziatua da Nafarroako Unibertsitatean, eta ibilbide literarioa garatu du poesiaren, narrazioaren eta arte eszenikoen esparruetan, ikuspegi feminista eta esperimental nabarmenarekin. Bere lanen artean nabarmentzekoak dira Cosas que crujen (Injuve Saria, 2010), Así, Berlín eta En el principio era la nieve poema-liburuak, baita Poetika Kiribila eta Encuentro Poético Unicelular bezalako diziplinarteko proiektuak ere.



Nagore Legarreta

Nagore Legarreta argazkilaria eta artista bisuala da, estenoipeko argazkigintzan eta prozesu analogikoetan espezializatua. Bere lanak gorputza, identitatea eta memoria bezalako gaiak jorratzen ditu, ikuspegi feminista eta poetiko batetik. PhotoEspaña, Saatchi Gallery edo Koldo Mitxelenan erakutsi du bere lana, eta argazkigintza parte-hartzaileko tailerrak eta ekimenak koordinatzen ditu.



Ainara Martin Blanco

Freelance

Arte Ederretan lizentziatua da EHUn, eta bere ibilbideak kultura-proiektuen kudeaketa estrategikoa eta zuzendaritza hartzen ditu barne, baita erakusketen komisariotza eta koordinazioa ere. DSS2016EU proiektuko lantaldeko kide izan zen, Irungo Udaleko Kultura eta Kirol zuzendari ere bai, eta Gipuzkoako Arte eta Kultura Kontseiluko kide izan da. Erakunde publiko eta pribatuetan esperientzia du, eta 2018az geroztik modu independentean lan egiten du, erakusketa analogiko zein digitalen komisariotza eta koordinazio lanetan, besteak beste, Koldo Mitxelena Kulturunearentzat. Proiektu europarretan parte hartu du, hala nola Horizon 2020 edo Transcreativa, eta berrikiago Re-wiring proiektuan ikertzaile aritu da Deustuko Unibertsitateko Soziologia Sailean. 2021ean, Gordailuaren enkarguz, Dantza filmarako Koldobika Jauregik sortutako arte-prozesuaren eta jantzien hautaketa, artxibo eta dokumentazio lana egin zuen.



Maria Montesino de la Iglesia

Soziologian doktoregaia da EHUn, landa-eremu berriak, kultura eta elikadura burujabetzari buruzko tesiarekin. 2005az geroztik landa-eremuan dihardu, antropologia eta agroekologiari buruzko tailer, argitalpen eta topaketak koordinatzen. La Ortiga aldizkariaren zuzendaria da, eta gizarte zientzien, kulturaren eta agroekologiaren arloko erakunde kultural ugariarekin kolaboratzen du. Gainera, ekoizle agroekologikoa da Dehesa La Lejucan.



Maider Zilbeti Perez

Ehu

Licenciada en Antropología Social y Filosofía por la Universidad del País Vasco; Maestra por el Instituto Internacional de Sociología Jurídica; y Doctora en Antropología Social y Filosofía de los Valores por la Universidad del País Vasco. Ha desarrollado investigaciones en los ámbitos de planificación urbana, producción de arte contemporáneo y participación política, en las que ha desarrollado propuestas para incluir la perspectiva feminista. En el sector público fue Directora General Adjunta de Relaciones Exteriores y responsable de la Unidad de Género de la Secretaría de Gobernación. También ha sido docente en diversas universidades en México y Estados Unidos: CIDE, UNAM, FLACSO, Universidad Anahuac y DePaul University. Es Fundadora y Directora General de Haizur, derechos humanos y desarrollo sostenible.



Mikel Zugaza

Miguel Zugaza Miranda artearen historialaria eta museografoa da, eta gaur egun Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendaria da, kargu hori 1996 eta 2002 artean ere bete zuena. 2002tik 2017ra bitartean Prado Museo Nazionaleko zuzendaria izan zen, eta bertan eraldaketa instituzional eta arkitektoniko sakona gidatu zuen. Bere zuzendaritzapean, Bilboko museoak zabalkuntza anbiziotsu bati ekin dio, 2026an amaituko dena, modernizazioarekiko eta bikaintasun kulturalarekiko konpromisoa berretsiz.



Uxo Zumeta

Uxo Zumeta Arte Ederretan lizentziatua da eta serigrafia artistikoan aditua, eta bi hamarkada baino gehiagoko esperientzia du grabatuaren inpresioan eta edizioan. Euskal artista nabarmenekin lankidetzan aritu da, besteak beste, Néstor Basterretxea, Dora Salazar edo Elena Asinsekin, eta arte grafiko garaikidea balioan jartzen duten erakusketak komisariatu ditu. José Luis Zumeta margolariaren alaba da, eta aitarekin batera sortu zuen Zumeta Arte Estudioaren zuzendaria da; bertatik, tradizioaren eta esperimentazioaren arteko elkarriketa sustatzen jarraitzen du arte bisualen esparruan.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-16 ARTE
UIK euskaraz	74,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	63,00 EUR
Matrikula exentzioa	52,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	63,00 EUR
Elkar	63,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa